



KOSTU EGITURA

Gure proiektuaren kosturik garrantzitsuenak hauek dira: lokalaren alokairua, hilean gutxi gorabehera 2.000 euro artekoa; langileen kostua, hilean 4.500 eta 6.000 euro artekoa; elektrizitatea, ura eta gasa bezalako hornidurak, hilean 400 eta 600 euro bitartekoak; garbiketa eta mantentze-lanak, 250 eta 400 euro artean hilean; aseguruak eta ziurtagiriak, 80 eta 120 euro arteko kostuarekin; erreserbak eta kudeaketa egiteko plataforma, hilean 50 eta 120 euro artean; eta negozioaren sustapena, 200 eta 400 euro ingurukoa hilean. Horrez gain, hasierako inbertsioa behar da sukaldeko ekipamendua, altzariak, lizentziak eta marketina finantzatzeko 53.000 euro artekoa.

